



ILEROKO ALDIZKARI EDERGAÏDUN AITA KAPUTXINOAK ZUZENDUA

:—: IX Urtea || 1927'ko Ilbeltza || 97 Zenbakia || :—:

URTE BERIA: 1927'gn urtea.

*****✠✠✠*****



Zeruko Argiak:

—EZAGUTZEN nauzute, irakurle maiteak? Bedera-tzigaren urtean sartzera noa ta pozik gero! Oartu zerate nola etortzen di-ran aurak mundu ontara? Jaio ondoan argalak eta indarrik gabe egoten dira, baña gero urteakin bate-anindarrik artzen dituzte.

Egia esateko, ilunpetik argira etori nintzanean, umetxoan eran eta indarrik gabe makal zuen eskuetara eldu nintzan, baña orain zein bi-ziera edera! mardul, polita ta oso opaindua natorkizue zuen artera.

Eskeñak lendabizi gure Jainkoari ta gero zuei, asko laguntzen di-guzute-ta.

—Ze asmoak ditudan? Lenengo urtean nituan ber-berak. Aldizkin-giaren (erebistaren) izenak argi ta garbi esaten dizute, Jaunaren go-ramena ta gero zuei zeruko bidea erakustea, betiko zoriontasuna era-xago iritxi dezazuten.

—Aurten zuen eskuetara joango naizen aldi guztietan auxe esango dizute lendabiziko orialdean ageri dan irudi eder-politak:

Prantzisko Santua, besoak zabalik, Euskaleriari begira, euskaldun guziak zeruratu naiean, ortarako zer egin bear duten erakusten. Adu ba ondo ta zintzo gorde!

—Mendi, ibar eta zelai guztiak lorez apainduta daudenean, or ibiltzen dira lanean erleak, lore baru-baruan sartuz usaidun lore-iriña artuz, ezti gozoa egiteko.

¡Ikasi, irakurle maiteak! Ezta naikoa ni, ZERUKO ARGIA, zuen eskuetan artzea. Erlen eran geldi geldirik eta patxadaz irakuri bein eta beriz; gauza onak ikasiko dituzute zarak, gazteak eta umetxoak ere bai.

Irakuri ondo ipuiak! mami aundia dute-ta. Ora or, joan dan urtean bezelaxe ipui polit bat, oso atsegin izango zaizute nere ustez eta maiz orelakoak emango dizkizutegu noski.

Zeruko Argiak irakurle guziori biotz-biotzez: Urte be-ri on! Bein da beiro urte be-ri on!!

Nere Aurtxo

.....♦✉♦.....

I

Seaskatxo polit bat
ba-det nere etxean,
ta Aurtxo Jesus eder bat
seaska-gañean.

Beti Zerurontz beira
ditu begitxoak,
goruntz jasota beti
bere besotxoak.

Pozezko ifipartxo bat
beti ezipañetan;
bere ointxo zuriak
beti jolasetan.

Oñetan muiñ-eginda
jun oi-naiz etxetik;
muiñ berogoik ez da irten
nere biotzetik.

Etñera bezin laister,
seaskara noa:
ta Aurtxoantzat lenengo
nere muiñ beroa.

Betzat oerakoan
muiñ azkenekoa,
jeiki orduko, befiz,
betzat lenengoa...

II

Atzo negafez arkitu nuan
bere seaskan Aurtxo...
Negar-zotinka egon zitzaidan
egun osoan gaxoa.

¿Zer dezu, Jesus, nion negafez,
nork egin dizu pupua...?
Ez egin negar... ¡Esan, ai! afen,
zerk zaukan naigabetua...

Begi maitetsuz begira nifun,
f'erantzun zidan negafez:
«Nere Mexico kendu didate
nere albotik indafez...

Befiz nerekin ikusi-arte,
noletan egon ni pafez...
Otoitz, Kristauak, otoitz ta negar...
Otoitz, danok biotz-gafez...!

Jauregi'taf L.



¡Gaixoa Jesus Aurtxoa!

Jesus etzatian,
Jesus jaikitizan.

Jesus sartzaite
Nere biotzian.

Baztango txoko batian zan...

Gauero, gauero oiek ziren lokartu baño len kantatzen ziran berso politak
Grazieneke etxian.

Auxtin.. Paulo.. Oatzera mutikoak.. dio amatxik (amonak): baño Paulo
asten da kantatzen, kantari polit ta gozo au:

Nere biotzekoa,
Nere kutuntxoa,

Zenbat maite zaitudan,
Amatxo gozoa!...

eta amak musu eder bat ematen zion aurpegiyan semetxoari, olako soñu gozoa en-
tzutian.

Ederki yago, mutikoa! orain kantatzen asten ba aiz sukalde txoko ortan...
zion bere baiten amatxik (amonak).

Auxtin... Paulo... otzeko bidia prest dagola!...

Baño, amatxi: zergatik eztuzu gaur kantatu nai, irine iralkitzen ari zarelaik
kantatzen dituzun kantu politetaik bakafen bat? erantzuten zioten umetxoak.

Amatxi: kantatu gaur Egu-befiko gaueko kantuetatik... Amatxi: politen poli-
tena....

Eta amatxi bera kantari edefa baitzen, asi zen soñu au kantatzen:

Belenen sortu zaigun Jainkoa,
Afatseko gau erdian:
Otez dardaraz dago gaixoa

Lasto pixkaren gañean:
Bero ahalez bero dezagun
Apa emanez musuan...

Ederki, amona: esaten zioten bi ilobatxo aiek, bere ondo ondoan obeki en-
tzuteko jartzen zirala...

Apa eman bear diogu guk ere Jesus Aurtxoari... ¡Gaixoa!.. ¡Otzaz ta lasto
gañean!...

Bertze bat, amatxi, esaten zion Paulok... Ori bai polite dala!

— Naikoa da gaurko: ta orain denak lo eitera, gau erdiko Mezara gero joa-
teko...

— Amatxi, kanta zazu geixago... Amatxi, jartzaite pixket... Amatxi, andik
eta amatxi emendik... etzuten bakian uzten... Amatxik azkenian esaten du bixi,
bixi...

¡Jaunak eta ala ere bai!... Eta... ba dijoaz aurtxoak lo eitera bakoitza bere txokora, bidenabar kantatzen dutela beren orazio eder eder ura, gauero ko orazioa...

Jesus, etzatian
Jesus, jaikitxian:

Jesus, sartzaite
Nere biotxian...

Orañik ere esaten diote aurtxo aiek beren amaxi xaar ari: Egu-befi gaua izaki ta eztiguzu bada kantatu biar beste kantutxoen bat lokartu baño len! Bai, bai nere maite oiei; ara bada...

Agitz maite dut nik nere ama
Ni sortu ninduelako:
Baño aurtxo oi maiteago dut

Nigatik jayo delako:
Ta gurutzean gero odola
Ixuriko duelako...

Baño, amaxi: Jesus Aurtxoak il bear du? Ta bere odola ixuri ere bai? Noiz, amaxi?... Orain ez: gero, erantzun zien... Ta bi mutikoak: Gaixoa Jesus Aurtxoak!...

Amatxi: Egu-befi Gau onetan kontatu bear diguzu Jesus Aurtxoain ele-xaar ura...

Gau ilun ilun bat zan, asi zan amaxi: negu gogofeko gau iluna; arkaitz zulo eta lezea bezain iluna... Ama Birjiñe eta S. Jose etofi ziran Belengo efi tar artarra... Otxaz ozpinduik zeuden, elufe ai zuen ta...

Etkez etxe ibili ziren leku pixka baten bilen: ta inork ere etzituen artu nai izan bere onduan...

¡Zeñen biotz gogofekoa zan Belengo yende ura!...

¡Beartsuak zirelako! dio Auxtiñek... ¡Ama Birjiña etxian inork ere ez artu nai! dio beriz Paulok...

Orduen, dio amatxik, efitik atera ziren, ta an biletu zuten etxola xaar batian sartu zen Jangoikoaren Ama gaua egiteko...

Berealaxen Ama Birjiña belauniko jafi zan begi edefak zeru aldera goratzen zituala, Jangoikoa bera ikusten balu bezalaxe... Eta luferra itzuli zituenian begi gozoak, ikusi zuen bere ondoan Jesus Aurtxoa, otzaz daldaraka zegoela eta negarez...

¡Nolakoa izango zan Ama Birjiñak Jesus Aurtxoari emango zion lenengo musua!.....

Berealaxen entzun zan zeru goi goyan aingeruen soñu eder edefa, eta ikusi ziran mileka airian kantari zabiltzala esanaz:

Gloria zeruan
Jangoikoari:

Dakea lufean
Gizon onari:::

Eta Ama Birjiñak seaskarik etzuelakoz, beyen ganbelan etzan zuen Jesus Aurtxoa; eta idi eta astoak beren asnatxaikin berotzen zuten Jesus maitea...

Goiz aldian etofi ziran artzañak Jesus Aurtxoa ikustera: eta belauniko jafirik musu ematen zioten oñetan. Eta Jesus Aurtxoak iri-bafe gozoa egiten zuen...

Ta artzañak ere kantari asi ziran esanez:

Artu, bada, artu Jesus Aurtxoa
Nik daukaten oberena:
Tori biotza, tori gogoa,

Au da noski nai duzuna:
Agur, Aurtxoa, zu zera gaurtik
Maite dugun maitiena....

eta arkitzen zuten yende guziari kontatzen zioten, aingeru eder bat agertu zitzaio-

tela eta esan ziotela: «Artzañak: gau onetan sortu zaitzue Belenen Salbadoria»...
Eta pozez eta kantari itzultzen ziran beren artaldera....

Amatxi: artzañen artian egon ba giñe gu ere, Jesus Aurtxoari musu emateko!.....



Aingeruak Jesus Aurtari agur-egiten

Orai berian, esan zuen amatxik, egin dezakegu ederki orduen artzañek egin zutena...

Bere ondoan jafi belauniko, eta biotza eskeñi, eta eman ere bai musu gozo gozo bat bere ointxoetan...

Goazen bada Gau erdiko Mezara..., Jesu Artxoari musu ematera....

Arayoz'ko Artzaña.

O. M. Cap.

Boskaren Agindua: Gorotoa

Omnis, qui odit fratrem suum, homicida est.
Bere anaia gofotatzen duan edozein iltzalea da.



ALDEA.--Boskaren Aginduak ez aldu debekatzen bizia kentzea besterik?

Erantzupena.—Boskaren Aginduak bizia kentzeaz landara debekatzen du gofotoa, bekaizkeria, gaizki esanak, asafekeria, bendekua ta nolana ere lagun urkoari nai zaikioken gaitza (Galafeta, Fr. Pedro.)

Naita-naiezkoa zan Jaungoikoak debekatzea, lagun urko (projimoari) gorputz-animetan egin zaizkioen gaitzaz gañera, gaitz oien sustrai, zain eta itufi diran goien aipatuak.

Jesus'ek esan zien bere apostoluei: zuen zuzentasuna ezpada Eskriba ta Fariseoena baño aundiagoa, etzerate zeruko efeinoan sartuko. Entzuna dezute antziñekoai esan zitzailela; ez inor il; iltzalea befiz auzipean eroriko da. Nik esaten dizutet befiz: bere anaiarekin asafetzen dan edozein auzipean eroriko dala...

Nai du esan; agindurik zegoen lendik inork eriotzarik egiten bazun, auzian zigorpetua izango zala; baño nik esaten dizutet, anaiarekin (lagun urkoekin) asafetzen dan edozein, iltzaleak juduen auzietan zigortzen zituzten bezin gogor zigortzea merezi duala. «Bere anaiari *raka*» esaten dionak merezi duala konsejuak zigorkatzea; au da itz beragafi ori esaten ziona, Juduen Auzi Nagusiak zigortzen (kastigatzen) zuan bezala zigortu bear zukela. «Eta bere anaiari *burugabea* esaten zionak» gofoto gaiztoz esan ezkerro, izen gaiztoa jartzeagatik, suleze edo infernu berera joan beafa zegoala.

Gofotoa zer da ba?

Gofotoa da lagun urkoakiko ongabekeri, ezagura ta gogo guziaz izaten zaiona. Ori daukanak eztu lagun ori ikusi nai, eztu arekin artu-emanik ere nai, gaizki nai izaten dio ta edozein gaitz edo eriotza bera ere bai; etortzen zaizkion okefaz poztu egiten da ta era eldu zaionean artaz gaizki esateko ta ari gaitzegiteko prest dago.

Ontaz nabari (agiri) da ba, gofotoduna biotzez eta gogoz gaizkile dela, oraindik lagun gofotatuari gaitzik egin ezpadio ere ta inoiz egingo ezpadio ere.

Gofotodunak eztio gaitzik egiten lagunari ez gogoaren bearez; baizik erarik izaten ez dualako, edo zerbait gaitz edo oker aundiagoa egingo zaion bildufez.

Gofoto egiazkoa denean, agertzen da geienez onako auetan: gofotodunak ez dio itzik eman nai izaten, diosalarik ere, gofotatuari; ontaz ongi itzegiten ba-da, miña artzen du; geienez ezin eramanak artaz gaizki esan erazten dio; inork, gaizki esaten ba-du artaz, poza artzen du.

Gofotoa ainbestekoa denean, edozein gaiztakeri asmatu gofotatuaz eta bafa-bafa esaten ditu batzutan gofotodunak; bestetan izkutuan egin dezaio-ken txarkeria egitera jartzen da ta askotan alakoari egin naiko lioken gaiztaren asmaketa gaiztotan ibiltzen da.

Ofelako gofotoa pekatu lafia da.

Ezta gofotoa, norbaitendako alako gogorik ez izatea, ez ari itzegiteko ezta ere adiskidetasunik izateko.

Ezta gofotoa, zutaz gaizki esanka aritzen dalako, edo txarkerien bat egin dizulako itzal pixkat gordetzea; alakoari ain gogotik ez itzegitea; alakoakin artu-eman aundirik ez nai izatea.

Ezta gofotoa, lapur, gaizkile norbaitek ostu edo gaiztakeri kaltea eman ba-dizu, zure galdua eskuratzegatik auzira edo bear dan lekura jotzea, an- dik lagunari ibili bear gaiztoa etofiko ba-zaio ere.

Ezta gofoto gaiztoa, zure anima edo zure seme-alaba edo mirabeak galbidean jartzen dituan begietan artzea; ura ez ikusi nai izatea, ari ez itzezin nai izatea, iges egitea edo ari diosala ere ukatzea ta ukatu-aztea. Alakoaz zion S. Joan Ebanjelariak: etzazutela etxean artu; ezta diosala egin ere ari (II Joan. I-10).

Gofotoa pekatu aundia da.

Gofoto egiazko ori pekatu aundia da. Jesus'ek esan zuan lagun-urkoa maitatzea lenengo mandamentuak bezalaxe beartzen gaituana dala.

Joan Ebanjelari deunak dio befiz: Norbaitek esaten ba du: nik maitatzen dut Jaungoikoa eta bere anaia gofotatuko ba-lu, gezurtia da. Ona nola adirazten duen ori:

«Begiz ikusten duan bere anaia maite ez duanak, nola maite izan dezake Jaungoiko ikusten ez duana» (I-IV-20).

Berafiek dio; Bere anaia maitatzen ez duana ilik dago (pekatu lafian). Bere anaia gofotatzen duan edozein iltzaile da; ta badakizute iltzaile inork ez duala bizirik arengan (Jaungoikoagan).

Jesus'ek zion (etzazula aztu kristaua): maita ditzazute zuen etsaiak eta ongi egiezute zueri gaizki nai dizutenai; zuen zeruko Aitaren aur izan zai- tezten (Matt. V-44).

Intza'r Damaso An.





Natus est in Bethleem

(Eguberiko abestia)

Na-tus est in Beth-le - em, gló - ri - a Je - ru - sa - lem
Bet-le - em-en jai - o da Je - ru sa - len' - go os - pe - a



Per Ma-ri-am Vir - gi-nem Ra - dix Jes - se flo - ri - da
A - ma Bir-ji - ña - gan - dik; Gaur Jes - se' - ren lo - re - ak



Pro - fert mun - do gau - di - a.

A - lai - tü du mun - du - a.



Natus est in Bethlehem

2—*Flos incomparabilis
Et excelsi Numinis
Splendor ineffabilis
Nobis fit infántulus
Jacens in praesépibus.*

3—*O Mater piissima
O Virgo dulcissima
Sinus nos in hac hora
Venerando Filium,
Osculare parvulum.*

4—*Verbum Patris hódie
Processit ex Virgine;
Virtutes angélicae
Cum canore júbilo
Laudes reddunt Domino.*

5—*Pacem nobis ómnibus
Nuntiavit Angelus:
Refulsit pastoribus
Veri solis radius;
Dicant omnes gratias.*

2—Lore berdingabea,
Ta Goiko Jainkoaren
Dirdira afigafia;
Aurtxo egin zaigu-ta
Askan dago etzana.

3—Oi Ama biotz-bera,
Birjiña txit gozoa!
Orain utzi zaiguzu
Seme ofi apalki
Eman dezogun musu.

4—Gaur Aitaren Itza da
Birjiñandik jaio;
Zerutar Aingeruak
Kantari poz-oiuka
Goratzten dute Jauna.

5—Aingeruak guziori
Eman digu pakea;
Artzaiai agertu da
Ziñezko eguzkia;
Eskeřak Jainkoari!

Urtsuia'k euskeratua



Ilabete onen amalaugarén egunean meza bat emango da «ZERUKO ARGIA'-REN» irakurle, zabaltzale ta ongile guztien alde, Antonio Santuaren aldarean.



Ama izatia, doai aundiya



URA ongi azitzea gauza erexa ez talako, Jaungoiko gure Jaunak amari biyotza doai afigafi-edefez apaindu dio eta doai eder oyen sustraia izateko, maitasuna eman dio.

Bere umea bear bezela azitzeko, beafak diraden doaien itufia orixen da amaren biotzian: Jaunak sortuazi duen bere-biziko maitasuna.

Maitasunaren zoragafitasunak ordea gnork dakizki?

«Maitasuna baño gauza sendo-iraunkofagorik eztezute arkituko: astuna dirudiena maitasunaren-tzako ariña da» (Imitat. Christi Lib. III. Cap. V); «nekegafiya nekatu gabe eramaten badaki eta samin-gafatza eztitsu biurtzen ere bai.»

Maitasuna zer den ama onari galdetu. Maitasunaren bila zabiltzatenian amaren biotzian arkituko dezute.

Maitasuna berez amaren biotzian sortzen den doaia da, Jaunak ala nai ta.

Ama semetxoa edo alabatxoa maitatzeko bizi da. Aur egin ta azitzeak ematen dizkion lanak bizkortzen dio maitasuna.

Ama izateko Jaunak autatu duen emakumiak, ordu latzak bere buruari eman bearko dizkiola baldin badaki're, baita're badaki asko ta asko maitatzeko doaia Jaun onak eman diola.

Ama izatia! Emakumeari Jaunak bera asko maitatzeko eta ufen umetxoak ere ala berian maite izateko eman dion doai egoki edefa da.

Ama zerana: Ez aztu zure etxea Jaun onaren elizatzkoa bezela dela: zure senafa etxera ekafi zenduenian edo senafak berera eraman ziñunian edo etxe befian biok bizitzen asi ziñatenian, aufetik Jaunaren aufera elizara joan ta bere bendizio ugariarekin biek elkar maitatzia ta elkarfeekin bizi-

tzia erabaki zenduten, elkar lagunduaz ta neke aldiak edo atsegin aldiak elkarfen artean berdin eramateko.

Ez aztu ama zerana «zure etxea elizatxo delá»: alaxen Pablo Apostoluak deitzen dio (Ep. ad Corinto c. XVI, 19) eta eliza ortako apeza bezela zerala zu, zu, ama.

Oyartzuna.

Osasuna

(JARAIPENA)

Zerk berexтен dituen egiazko medikua eta alegiazkoa, ez da éfáx iárdesten (erantzuten).

Bat legearen araberrako baldintzaren jabe dela, eta bestea ez: ori zerbait da.

Batek ikastaro luzeak egin dituela, besteak ezerez; ori ere ala da.

Baña, gaitza bílatzeko baten ustekida, bere jakinduria; bertzeak befiz bere begiz ikusi duen ura eta alakoetan beste norbaitek egiten zuen ura.

Mediku on bat osotzeko ez da aski jakinduria, begi-golpe ona bear du, esku apaña, eta ukitzeko, zapatzeko eta indar egiteko bere beatzen jabe bear du beti.

Askotan gertatzen da, jakinduri duenak ez dituela begi eta esku onak; eta aldiz, begi eta esku onak dituenak, eskolarik ez duela: ots, batek mediku-gai ona eskolarik gabe eta besteak eskola, mediku-gaik gabe.

Gaitzak gure izatea naasten duenean, onek bere kabuz eta indárez, askotan gaitza lekutzen du, medikuak lagunduz edo lagundu gabe.

Gaitz askotarik, baldin sendatzen bagera, laguntza berezirik gabe, jakíña da, orietan ez dugula sendakin beafik; baño aldian aldiko befi zuzenik ezpai dugu beti, orgatik auen sendatzeko erabiltzen dugun ura, gaitz aren osagaitzat ematen dugu.

Batzuek uste dute mediku ikasi batek beti, erdiz-erdi jo bear duela gaitza, bestela, bat uts-egiten badu, ez dela egiazko mediku.

Aldiz, alegiazko mediku batek 10'etarik, bat, ustegabea edo sendatzen badu, ura nagusi.

Ortan dago koropíloa eta diote ikasi gabe sendatzen badu, arek badu zerbait; dakienak uts bat egiten badu, ezdaki.

Non ta, sendakintzako esanerak eta egiak ez diren bi ta bi, lau bezalako; izango ditugu egiazko eta alegiazko sendakinak.

Baldin sendakin guziak ezpadire sendakintzerako gai, auen efuek alegiazkoak dituzte laguntzen.

Ezpairik gabe; sendakintzako ikasi bear da. Ez daitake sendakin onik, ikasi eta asko ikusi gabe. Ez daiteke mediku onik, ezpadaki gaxoekin ari denean, noiz eta nola egin dezaken on eta kalte.

Ez daiteke mediku onik, ez dakielarik baten baitako éfaién befi guziak: jakiteko noiz gauden makur, leenik jakin bear du, noiz eta nola gauden zuzenik.

Iñor ez da, ikasi gabe jakintsu; gisa batera edo bestera ikastaroak egin bear dira, bear bezalako sendakin agertzeko. Baike: gaitz guziak sendatzen dituen sortzekoa da orañik eta bizkitartean, beti izango da andik edo emendik aitzaki, egiazko sendakina uzteko eta alegiazkoari jotzeko.

Ortaz landara, sendakin gaiago eta alegiazko sendakin gutiago.

Ainbat sendakin txar eta ainbat sasi-mediku geiago.

Jakinduria eta begi zofotza bear dire mediku on bat izateko.

Eta oriek ere ez dira aski, baldin ura ezpada gaitz-bilatzaile ona.

Gaitza berexteko bear diren bideak ezpadakizki, eta oien barna ibiltzen ezpadaki; beñere ez da sendakin on bat agertuko.

Sasi-medikua, geienetan itsu-mutsuka dabil eta ondorengoari buruz beti ilun, ezpai du ařtako argirik aski eta argi-eske joateko biderik ere ez daki.

Nor nairen baitan, Jaungoikoaren doai bat siñistea, ez da zuurtzia.

(Uřengo aldian azkena)

LĀREKO.

Merketza

Asmo bat.

Orain arte «Zeruko Argian» ederki ta mamitsu itz egin dizute «Merketzaz» Ibařetxe'tar Iñakik. Orain befiz neri eskeñi didatela-ta, ona ba ni nartorkizue gai ortaz itz egitera.

Zer da merketza? Indar gutxi ta txikiaren bidez gauza bategandik ondore aundiak ta ekarkofak ta edefak ateratzea, degu «Merketza».

Nola iritxi daiteken *merketza* lendabizi etxe bateko gauzetan, esatera-ko, lur, abere, diru, janari-edate ta gañerako tresna guzietan; gero edozein efi batean, ta azkenez Euskaleñan; orixe guzia azaltzeko asmoa artu det nere baitan.

Merketzaren oñariak.

Oñafi sendoan ezafi nai det «Merketzaren» etxea. Gezufeřzko oñafitan jafi zutelakoz, iraũlka dabiltzala efi guziak ikusten bai-degu «Merketza» gauzetan.

Gezufeřzko oñariak.

1). Mundua lana da, lana da gauza guzien jasoa edo balioa; gizona ta langileak esatea berdin da, langiletza da gizonaren mami guzia: langileak batutzea elbururik aundiena ta beařena; langileen Batzařarenak dira lanaren emaitza, igali edo frutua. Au guzia diote sozialista ta oiek kutsatuak.

2). Dirua da guzia ta mundu onen jabea, dirua biltzea elburu guzia, ortarako da gizona; beste elbururik ez du. Ala diote merkantilistak ta kapitalistak ta oien lagunak.

Egiazko oñariak.

Gizona langile da. Jainkoak atsegintegian jafi zuan lendabiziko gizona toki ura landu zezan. Pekatua egin ondorean befiz kopetako izerdiz luña lantzerantz bialdu zuan.

Gañera gizona Jainkoaren egintza da, sendirako (pamilirako) ta efirako egiña ta zerurako deitua.


Jainkoa da gauza guzien lenengo egile ta jabea; gizona bakafik gauza oiek erabiltzeko ta bigaen egile.

Jainkoa da gauza guzien itufi ta asiera; bai ta ere elburu ta azkena. Gauza oiek erabiliñaz ta protxu (onura) atereaz, gizonak Jainkoa goretsi ta maitatu bear du. Adimena ta naimena berak bakafik du ta adimenik ta naimenik gabe ez daiteke Jainkoa maitatu. Ortarako, Jainkoa goresteko ta maitatzeko erabili bear ditu gizonak gauza guziak: diru, lur t. a. Ori da egiazko merketza.

Gizon guziak elburu ori bete bear dute; ortarako lan egin bear dute; alperkeririk ez da bear ortarako.

Nola bada erabili gauzak, merketza ori egiteko? Ufengoan ikusiko degu.

Amaialde.



Artaldea zaintzen. (Alegi Aren argzk.)


Zuretzat nai eztezu..... ez nai izan besteentzat....



Ongi bazkaldu ondoan
Ortze dijoa Bartolo,
Bere papera eskuan,
Aizea artzera gozoro.



Aga luze bat zegoen
Zear jafia bidean;
Bartolo'k topo egin zuen
Ta ankaz gora erori zan.




«Añano ¡mila deabru!»
(Dio asafe bizian)
«Beste norbaitek bear du»
«Erori ementxe bertan!»




Befiz aga zear jafi,
Artu eskuan papera
Eta patxadan; poztari
Badoa befiz aufera.



Zakur ori bat-batean
Irtetzen zaio bidera;
Bartolo'k bildur gofian
Jotzen du azkar atzera.



Estu, lafi, itsumustuan
Orain eztu aga ikusi;
Topo egin ta berartan
Bera da befiz erori.



Lourdes'ko Erakusketa (esposición)

Datoñen urtearen Jofailean Lourdes'en jafi nai dute elizgauza guzien erakusketa. Eliz-gauza ta apaingafiak egiten aritzen diran munduko 'ola' edo fabrika guziak erakutsi ditzakete Lourdes'en beren lanak. An ikusiko dira ezkilak, organuak, apaiz-jantziak, elizontziak, irudiak, liburuak eta abar. Erakusketa au zein gafantzi aundikoa izango dan ikusteko, jakitea besterik eztago zenbat gozai (obispo), apaiz ta katoliko biltzen diran urtero Lourdes'en.

Katolikoak eta sozialistak.

Prantzi'ko efi batean (Villefranche-sur-Cher) prozesioa egitera zijoazten katolikoak, alkatearen baimena iritxi ta gero. Alkatea ordea damutu egin zan eta sozialista-komunisten gogoa egiteagatik, baimena kendu zien. Etzan Gotzaia ikaratu ta katolikoai agindu zien kalera ateratzeko; 8.000 atera ziran. Au ikusiaz, 80 sozialista prozesio afean jafi ziran, beren «Internazional» kantatuaz. Katolikoak Kredoarekin erantzun zieten, ayen mafuak estaliaz. Norbaitek afia bota zuan Jauna zijoan aldera, baño etzan ezer gertatu; katolikoak nai zutena egin zuten, ta batez ere epelak bildufez zeudenak berotu.

Kartzelan gizon geyago, zergatik?

Prantzi'ko aldizkingi (revista) batek sariketa (concurso) bat egin nai izan du ta galdetu irakurleai ea zergatik dauden espetxe edo kartzelan emakume baño gizon geyago. Erantzupen obena ematen zuanari sari (premio) bat emango zitzaion. Sari ori emakume batek irabazi du. Zergatik dauden espetxean emakume baño gizon geyago?—Ara zergatik, erantzun du emakume onek; elizan gizon baño emakume geyago izaten diralako.

Liburu zikiñak.

Liburu zikiñen kontrako lege bat eman dute Alemanian. Lege ofek afapatanen dituen liburuak zenbat ote diran? *Bi mlioi* Zenbat zikinker! Zenbat anima galarazi ote dituzte liburu zikin! Lege ori nai etzutenak etzuten uste olako liburuak ainbeste ziranik, baño alaxe da, ministroak berak ala esan du ta.

On aundia egingo ote du lege ofek? Zer esanik eztago on egingo duela, baño ez bear litzaken adiña. Lenbizi jende askok orain gogozago irakufiko dituzte liburu oiek, gaiztoak direla ezaguturik. Beste aldeik befiz biguñegia da lege ori, emezortzi urtez berako aufentzat bakafik debekatzen ditu liburu aiek. Zenbateko kaltea egin dezakete bada emezortzi urtez gorako jendetan? Ta gafiñera jende azien eskuetan ibili ezkerro, eraz da aufen eskuetara ere etortzea; ta

orduan legea erdi alpefikakoa izango da. Ofegatik' onena izango zan liburu zikin guzi oiek ondatzea, efetzea; baña ori etziteken egin oraindik, zikinkerioien adiskide asko dira ta. Pixkeka pixkeka egin bearko.


Mexiko'n

Mexiko'tik datozkigun befiak erakusten digute, an Elizari ta erlijioari egiten zaion gudu (gefa) izugafia eztala oraindik gelditzen, aufera daramatela indar berean. Ala ere Calles eta bere lagunak esaten dute ta siñetsiarazi nai dute an etzaiola ifñori gaitzik egiten, denak pake edefean bizi dirala. A gezurtiak! Katolikoak beren aldetik sendo daude beren fedean, deabruaren mirabe aiek egiten dizkieten gogorkeri guziengatik ere.

Guadalajaran larogei ta amar katoliko giltzapean sartu dituzte; an bertan, seminarioa itxi baitzuten, apaizgaiak etxe batean biltzen ziran elkafekin estudiatzeko, baña soldaduak an sartu ta guziak joka ta makilaka aterazi ta banatu zituzten. Beste ainbeste egin zuten Langile katolikoen etxean; sartu ta batzuek zauritu, besteak lotu espetxerá (kartzelerá) eramateko. Ola loturik zeramazkitela, gazte katoliko batek oi u egin zien, Elizaren fedean gogor irauteko bildufik gabe, etsi gabe. Orduan soldaduak gazte ura jo ta lufera bota zuten ilik.

Beste gazte bat giltzapera zuten, etxe batean Afosarioa ezezutzen zuelako; ta amaika olako gaiztakeri egin dituzte Calles'en soldaduak ango katolikoekin. Bein batean afapatu zituzten bi mutil katoliko, bat ogei ta lau urtekoa, ta bestea amazpi urtekoa. Esan zioten zafenari «Gora Calles» oi u egiteko; baña afek ofen orde «Gora Kristo Efegea» oi u egin zuen. Ordean soldaduak belafi puska bat moztu zioten. Befiz ta befiz ere esan zioten «Gora Calles» esateko, baña afek beti «Gora Kristo Efegea» erantzuten, ta ofela puxkeka puxkeka bi belafiak moztu zizkioten. Bere ofazé izugafien erdian oi u egin zuen befiz ere «Gora Kristo Efegea» ta orduan soldadu biotz-gabe aiek mingaña moztu zioten ta jo ta lufera bota zuten. Beste mutil katolikoa, amazpi urtekoa, antxe zegoen begira ta besarka estu estuan lotu zitzaion bere lagunari. Orduan soldaduak tiroka il zituzten biak. Mutil aien zintzotasuna! Ez al dira aiek egiazko martiriak? Ikasi dezatela gure aldeko gazteak Kristoren fedeari zintzo eusten.

Neketako Ama-Birjiña'ren Irarkolan, Iruña'ko Kaputxinotan.



ERTE BÉRI ON!

Zendova